

Afrikara eginiko bidai hunkigarria

Akaziaren Jokoa antzeztu zuten larunbatean kulturetxen Medicus Mundiren eskutik

Bi emanaldi egin zituzten larunbat arratsaldean kulturetxean, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz, Lasarte-Oriako Udaleko Kultura eta Gizarte sailak antolatuta Danok Kide elkartearen laguntzarekin.

Antzezlan honen helburua Afrikako errealitatea erakustea zen, eta ikusleek esan zigutenez, lortu zuten.

Medicus Mundi erakundearen sentsibilizazio kanpaina da *Akaziaren Jokoa* antzezlan, euren esanetan "sentsibilizazio kanpaina gehienak erakusketa eta hitzaldien bitartez egiten dira, eta guk beste modu erakargarriago bat aurkitu nahi genuen". Horrela jaio zen antzezlan; ideia Gasteizko Abstractoesfera taldekoei helarazi eta beraiek gauzatu dute.

Malaria

Malaria Afrikan arazo garrantzitsua da, baina antzezlan honetan ez da gai nagusia. Afrikan zentratzen da obra, bertako historia eta errealitatea islatu nahi izan zuten antzezleek eta gehienbat Afrikari buruz jendeak dituen arriritziak apurtzea eta azalirik malariaren arazoa ezagutzeko. Esan beharra dago

malaria gaur egun Afrikako herrialdeetan bizi den arazo larria dela. Haurdun dauden emakumeei eta bost urte baino gutxiago duten umei eragiten die gehienbat. Urtean 1.000.000 pertsona hiltzen dira gaixotasun honen ondorioz eta Afrikako gizartearen %40a gaixo potentziala da. Gainera okerrera, gaixotasun hau prebenitu eta sendatu daitekeela, baina ez dela askorik egiten salatu nahi dute Medicus Mundi erakundetik.

Afrikara bidaia

Akaziaren Jokoa Afrikara bere alabaren bila doan aitarien bidaia azaltzen da. Orain urte batzuk joan zen bere alaba Afrikara, eta bertan geratzea erabaki zuen, bolada baterako behintzat.

Hasiera batean bere berri maiz bazuten ere, gero eta gutun gutxiago jasotzen joan dira. Halako batean, gutun batekin alabak bere egunerokoa bidali die. Ez omen dago oso ondo, gaixorik sentitzen da... Aita arduraturik Afrikara bidaiatzea erabakitzen du. Hasieran ez du ulertzen bere alabak zer ikusten dion erakargarri Afrikari, baina poliki-poliki, eta egunerokoaren laguntzaz, zenbait gauza hobeto ulertzen ditu. •



Alabaren bila joan zen Afrikara antzerkiko protagonista, eta bidean nahiko komeri eta abentura bizi behar izan zituen.



Bere egunerokoa bidali du etxera, ez da ondo sentitzen, gaixotu egin da Afrikan eta botikak lortzea ez da erraza...

Nerea Astarte lasarteoriatarak dantzatuko du ostiralean Verdinirekin /4

KIROLA /2

Herritar ugari bildu ziren Behobia lasterketan hotza eta euriari aurre eginez

jardunaldiak jornadas
errausketarik ez!

Errausketarik Ez jardunaldietan osasunaz arituko dira Lasarte-Orian /6

BERTAKO FABRIKAZIOA
Solomoa baratxuritan-Baserri pateak
Odolkia- Solomo ontzutua
Etxeko txorizoa
Txistorra

Tripakiak- Saltxitxak
ZORIONAK KORRIKALARIE!
Basurde burua

ADURIZ DE LASARTE S.A
Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451
Lasarte-Oria

ELEKTRIZITATEA
ARREGUI

- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak
- Material elektrikoak
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak

Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA

Hotza eta euriari aurre eginez Behobian

Guztira herriko 169 korrikalarik hartu dute parte aurtengo Behobia-Donostia lasterketan

Aurtengoa Behobia-Donostia lasterketa-ko 46. edizioa izan da eta eguraldiak ez badu lagundu ere, herritar asko animatu dira bertan parte hartzera aurten lehenengo aldiz, patinetan ere atera dira.

Aurten ere David Martin izan da lehenengo lasarteoriatarra helmugan 01:05:26 denborarekin eta lehenengo emakumezkoa Olatz Arozena Isasa izan da 01:42:08rekin.

46. Behobia-Donostiako irabazlea iaz bezala Rafael Iglesias Borrego, salamankarra izan da 01:01:12 denborarekin. Emakumezkatari Maria Lopez de Tejada Ruiz donostiarrak sartu da lehena 01:15:10ekin.

Lasarteoriatarrak

Patinatzaileen emaitzak hauek izan dira: 19 Aratz Otaegi Gurrutxaga 00:51:12; 44 Igor Otaegi Gurrutxaga 00:57:35; Jose Manuel Zarautz Arruti 01:04:10; 72 Sonia Rodriguez Ibarra 01:04:10.

Korrikalarien emaitzak berriz honakoak izan dira: 7 David Martin Blazquez 01:05:26; 63 Jose Luis Delgado Arenales 01:09:32; 248 Raul Gomez Margallo 01:14:07; 290 Raúl Tejado Muñoz 01:14:48; 473 Ismael Hernandez Ciudad 01:16:52; 512 Garikoitz Goikoekea Ojanguren 01:17:08; 705 Julen Ollokegi Biurrarena 01:18:19; 717 Javi Gil Espiño 01:18:22; 817 Endika Garcia Eizagirre 01:18:51; 878 Luis Enrique Gallego Olmo 01:19:09; 975 Francisco Borja Romero Amantegui 01:19:38; 1010 Carlos Martin Lazcano 01:19:48; 1297 Iñaki Sudupe Nogues 01:21:19; 1311 Antonio Mazo Alvarez 01:21:23; 1355 Javier Olazagoitia Rodriguez 01:21:38; 1372 Iban Urkizu Alday 01:21:42; 1394 David Sanz Diez 01:21:48; 1402 Juan Mari Marcos Molina 01:21:51; 1416 Oscar Gandia Pascual

01:21:59; 1478 Pablo Romero Arranz 01:22:15; 1508 Tomás González Bardón 01:22:23; 1524 Raul Barrera Daniel 01:22:27; 1684 Jose Martin Arregui 01:22:59; 1853 Jose Antonio Curiel Jimenez 01:23:32; 1975 Iraitz Arruabarrena Jauregui 01:23:58; 2198 Jose Ignacio Elvira Sanchez 01:24:41; 2245 Oroitz Gonzalez Gonzalez 01:24:49; 2278 Ibon Gorraiz Laskibar 01:24:55; 2377 Joseba Iparraguirre Usarralde 01:25:12; 2573 Marcos Bujanda Trincado 01:25:49; 2587 Iñigo Gómez Bayot 01:25:52; 2608 Iker Etxaniz Irigoien 01:25:55; 2655 Juan José López Sierra 01:26:03; 2790 Eduardo Rivas Clemente 01:26:26; 2855 Juan Mari Sarobe Gabirondo 01:26:36; 3330 Sergio Mendez Manuel 01:27:49; 3556 Fede Otaegi Fino 01:28:17; 3631 Jose Luis Arzallus Silva 01:28:25; 3668 Juan Luis De La Mata Rodríguez 01:28:31; 3911 Alberto Arbizu Sotes 01:29:01; 4068 Gorka Mateo Chinchilla 01:29:18; 4078 Sergio Rivera Domínguez 01:29:19; 4121 David Mecerreyes Molero 01:29:24; 4175 José Miguel Andonegi Martínez 01:29:31; 4266 Igor Amantegui Ibarzabal 01:29:43; 4269 Ariz Corcuera Izaguirre 01:29:44; 4375 Eduardo Ormazabal Garmendia 01:29:55; 4403 Alvaro Mendive Palomo 01:29:59; 4538 Javier Montejo Fernandez 01:30:19; 4554 Guillermo Campo Cortes 01:30:22; 4571 Alvaro Sañudo Acosta 01:30:23; 4634 Josu Riezu Arregi 01:30:32; 4676 Jose Manuel Barrio Muñoz 01:30:38; 4736 Joxe Goikoekea Nieto 01:30:45; 4843 Aitor Erauskin Aranburu 01:30:58; 4899 Mikel Rivera Domínguez 01:31:06; 4995 Igor Zabalbeitia Duque 01:31:18; 5040 Haritz Curiel Yarza 01:31:23; 5046 Gurutz Iturbe Urretabizkaia 01:31:24; 5047 Fco Javier Ruiz



Goizeko 08:15ean Behobian parte hartuko zuten korrikalariak zuten zita tren geltokian argazkia ateratzeko.

Gutierrez 01:31:24; 5164 Iñaki Bocos García 01:31:38; 5283 Mikel Ormazabal Garmendia 01:31:54; 5497 Ivan Granada Macazaga 01:32:18; 5586 Peio Fadrique Fadrique 01:32:29; 5911 Iñigo Valdivia Calvo 01:33:15; 5918 Jesus M^a Arozena Isasa 01:33:17; 5972 Eduardo Franco Iglesias 01:33:24; 6149 Ion Ormazabal Salegui 01:33:49; 6230 Tomas Arruti Aldalur 01:33:59; 6338 Mikel Samsó Arkai 01:34:12; 6676 Fernando Egaña Gilisagasti 01:34:52; 6737 Xabier Esnaola Bereciartua 01:34:58; 6772 Jose Miguel Corchuelo Ines 01:35:02; 6868 Ion Arroyo Alkorta 01:35:14; 7034 Zigor Lekaroz Fernandez 01:35:34; 7067 Miguel Angel Martin Azcona 01:35:38; 7116 Joseba Lertxundi Etxeberria 01:35:43; 7212 Roberto Ortega Fuentes 01:35:54; 7241 Aitor Otero Villanueva 01:35:58; 7279 Asier Gorostegi Aliri 01:36:02; 7389 Sergio Rodriguez Arroyo 01:36:15; 7492 Enrique Jose Cebriá Andreu 01:36:27; 7578 Victor Morales Marques 01:36:38; 7800 Julen Vega Marin 01:37:07; 7830 David Bernabeu Larre 01:37:10; 7833 Pablo Garmendia Altuna 01:37:10; 7903 Jose Ignacio Mendiluce Aristondo 01:37:19; 8066 Mikel Corta Albizu 01:37:39; 8088 Txetxu Merchan Villara 01:37:42; 8153 Jesus Lopez Estevez 01:37:49; 8178 Jesus Osua Garcia 01:37:52; 8596 Carlos Muñoz Arrate 01:38:41; 8633 Javier Tranche Aguirre 01:38:45; 8746 Roberto Rebe Busto 01:38:58; 8763

Juan Maria Artola Sukia 01:38:59; 8847 Ignacio Ruano Baeza 01:39:09; 9047 Eduardo Galardi Mendiluce 01:39:31; 9179 Iñigo Unanue Martinez 01:39:47; 9240 Faustino Pecharroman Gutierrez 01:39:54; 9262 Jose Joaquin Peña Garcia 01:39:57; 9430 Francisco Aristimuño Zabaleta 01:40:22; 9669 Javier Molano Narciso 01:40:52; 9684 Jose Antonio Eizmendi Arteaga 01:40:54; 9689 Antonio Urruzola 01:40:54; 9791 Mikel Olaz Garmendia 01:41:06; 9883 Joxean Belartietia Olano 01:41:16; 9931 Argoitx Arrubarena Jauregui 01:41:23; 9989 Carlos Martínez Pindado 01:41:32; 10020 Igor Gonzalez Ubegun 01:41:35; 10175 Aitor Arrieta Marcos 01:41:53; 10234 Juan Antonio Abrisqueta 01:42:00; 10284 Olatz Arozena Isasa 01:42:08; 10329 Antonio Galan Pavon 01:42:13; 10481 Gorka Lasa Azpiazu 01:42:33; 10491 Pablo Ucero Arsuaga 01:42:34; 10700 Maite Toquero 01:43:03; 10701 Joxe Sarobe Sorrondegi 01:43:03; 10707 Juanan Centeno Lopez 01:43:04; 10915 Juan Jose Molan O Bermejo 01:43:32; 11005 Iñaki Azpiroz Illunbe 01:43:46; 11112 Aitor Sorozabal Portu 01:44:02; 11125 Mikel Zarra Inchaurre 01:44:04; 11168 Luis Manuel Urbano Franco 01:44:10; 11181 Fco Javier Rodriguez Serrano 01:44:11; 11242 Ales Martin Ibarzabal 01:44:20; 11253 Araceli Beldarrain Castillo 01:44:21; 11282 Eduardo Horcajo Unanue 01:44:25; 11314 Pello Artetxe Lazcano 01:44:30; 11773 Borja Huerga Herrera 01:45:35; 11853 Miguel Angel García González 01:45:47; 11902 Gorka Alvarez Esteibar 01:45:54; 11943 Ibon Etxaiz Vecino 01:46:01; 12287

Ricardo Fernandez Caballero 01:46:53; 12320 Iñaki Larrocea Segura 01:46:57; 12341 Jesús Marcos 01:47:01; 12453 Aitor Billalabeitia Molina 01:47:17; 12579 Aritz Irigoyen Martinez 01:47:36; 12788 Aurelio Fernandez Palomo 01:48:07; 13103 Iban Martin Otamendi 01:48:57; 13114 Leandro Romo Camarero-Nuñez 01:49:00; 13116 María Peñafiel Balmaseda 01:49:00; 13587 Carlos Iturrarte Suberviola 01:50:29; 13666 Jose Antonio Hernandez Blanco 01:50:46; 13670 Naiara Mendiluce Erkieta 01:50:46; 13838 Eneko Del Campo Yeregi 01:51:24; 14132 Jose Antonio Beltran Ortega 01:52:23; 14152 Iñaki Corchuelo Inés 01:52:27; 14633 Mikel Villarroya Macazaga 01:54:03; 14634 Ainhoa Perez Benito 01:54:04; 14820 Fernando Navarro Castro 01:54:44; 14826 Arsenio Gutiérrez Almazor 01:54:44; 14844 Jesus Marcelo Huerta Salagre 01:54:48; 14846 Montse Latorre Ortega 01:54:48; 15131 Juanjo Aldaz Etxabe 01:56:20; 15421 Elixabete Lorenzo Borda 01:57:40; 15462 Goio Jaka Auzmendi 01:57:53; 15574 Igor Sevilla Gracia 01:58:30; 15576 Miren Iturbe Urretabizkaia 01:58:30; 15725 Susana Bizarro Garcia 01:59:11; 15780 Eneko Alkorta Larburu 01:59:29; 15782 Iñaki Alkorta Irutetagoiena 01:59:29; 15980 Juan Antonio Matarranz Leon 02:00:47; 16292 Fernando Ayape Eguidazu 02:03:25; 16306 Juan Mari Gastesi Zabaleta 02:03:33; 16556 Iker Goenaga Olaizola 02:05:57; 16949 Iban Medina Cascallar 02:11:38; 17105 Jose Lavado Canchal 02:15:37; 17177 Irune Alzola Elizondo 02:18:01; 17290 Sergio Martinez Maqueda 02:23:40. •



Igor Otaegi lehen aldiz patinekin Behobian eta David Martin berriro ere I. lasarteoriatarra.



Oria Hirukoteak kontzertu ederra eskainiko du hilaren 19an, ostiralean Brigitarren komentuan

Danok Kide elkartearen ekimen ugari abian

■ Ostiralean Oria hirukotearekin hasiera emango zaie, VI. Musika Topaketei ■ Jaiotzen XVIII lehiaketa ere martxan da

Aurreko zenbakian berri eman genuen bezala, Danok Kide elkarteak formazio iraunkorren ikasurtea hasi da. Baina ikasketez gain, aisiarako ere lekua dago elkartearen. Honela, hurrengo ostiralean Musika Topaketen VI. edizioari hasiera emango dio elkarteak eta Eguberrietan ohikoa den jaiotzen lehiaketako oinarriak atera ditu dagoeneko.

Musika Topaketak

Musika Topaketen lehenengo saioan, ostiralean arratsaldeko 19:30ean Oria Hirukotea entzuteko parada egongo da, Brigitarren komentuan.

Herrian bizi den Carlos Rosat flautistak, Eduardo Baranzano kitarak eta Pascal Arnaud biolak sortutako hirukote honek hiru abesti eskainiko ditu.

Lehenengo piezan, Ferdinando Carulli-ren *Serenatan* zeharkako flauta eta kitarra izango dira entzungo diren instrumentuak, ondoren Frances-

co Molinoren *Hirukotea Re Nagusian, Op. 45a* izango da. Eta atsedendialdiaren ostean, pieza bakarra entzungo da, Wenzeslaus Matiegkaren *Nocturno Op.21a*.

Jaiotzen lehiaketa

Gabonak hurbil ditugu. Turroia, pinua eta nola ez ba jaiotzak. Urtero bezala, Danok Kide elkarteak XVIII. jaiotzen lehiaketa antolatu du eta parte hartzeko oinarriak argitaratu eman ditu.

Banaka edo taldeka hartu daiteke parte lehiaketan, baina lan bakarra aurkeztuz. Jaiotzarekin batera, gutunazal batean egileen izenak sartu eta azalean parte-hartzaile edota taldearen adina idatzirik entregatu behar da.

Jaiotzak, gehienez, 80x60 cm-tako dimentsioak izango ditu eta ez da onartuko hondo sendorik ez duen jaiotzarik, ezta lehiaketara aurretik aurkeztutako proiekturik ere.

Lanak kalifikatuko dituzten taldeak, lehiaketako sariak

banatu gabe utz ditzake, kalitatezkoak ez direla uste badu.

Lau maila bereiziko dira sarietan. A mailan, 6 eta 9 urte bitarteko haurren irabazleak 60 euro eta trofeoa jasoko du eta bigarrenak, 40 euroko saria. B mailan, berriz, lehenengo sariak 70 euro eta trofeoa eta bigarrenak, 50 euro. 14 urtetik 17rako tarteko gazteen C mailan, 90 euro eta trofeoa izango ditu lehen sailkatuak, eta bigarrenak 60 euro. Azkenik, 18 urtetik gorako D mailako lehenengo sailkatuak 120 euro eta trofeoa izango ditu, eta bigarrenak 90 euro.

Saririk ez lortu arren, kontsolazio saria dago onartutako lan guztien egileentzako. Elkarteak, 15 euro emango ditu aurkezten den jaiotza bakoitzeko.

Gauzak honela, jaiotzak abenduaren 20 eta 21ean, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara aurkeztu behar dira, Danok Kideko egoitzean, Blas de Lezo kaleko 11-13 zenbakian. •

AKATSAK ZUZENTZEN

Edozein talde terroristaren biktimak gogoratu ziren Oroimenaren egunean

Ostiraleko aldizkarian, azalean argitaratu genuen Oroimenaren Eguneko albistean Lasarte-Oriako Udalak irakurritako mozioan aipatu ziren biktima bakarrak ETak eragindakoak izan zirela adierazten da. Baina okerreko informazioa eskaini genuen.

Izan ere, irailaren 9an egindaoko Udal Batzarrean onartutako mozioko bigarren puntuan idatzita dagoenaren arabera, terrorismoaren biktima guztien oroitzapenetan egingo da aipatutako mozioaren irakurketa. •

GIZARTE ZERBITZUAK

Oinarritzko elikagaien banaketa egin da

Lasarte-Oriako Udalak, behar gehien duten pertsonen laguntzeko planeko partaide gisa, oinarritzko elikagaien 2010. urteko bigarren banaketa egin du udalerrian.

Gizarte Zerbitzuen konpromiso eta funtzioetako bat egoera zaila bizi duten pertsonen harrera eta laguntza ematea da, gehienetan pertsona horiek bizimodu duin bat aurrera eramateko gastuak euren gain hartzeko ezintasuna dute eta.

Gurutze Gorriaren Lasarte-Oriako bulegoaren laguntzarekin, 4.752 kilo elikagai, arroza, azukrea, zerealak, gailetak, irina, esnea, pasta, etb. banatu dira eta emergentziatzeko laguntzak dituzten 123 familiatan, hau da, 293 pertsona izan dira onuradunak. Joan den uztailan 4.868 kilo banatu ziren 122 familia artean, guztira 293 pertsona. •

SOLASKIDE

Kurtso hasierako afaria

Ttakun Kultur elkartearen Solaskide egitasmoan parte hartzen duten herritarrek kurtso hasierako afaria egingo dute azaroaren 22an, astelehena, Arriaskalleta elkartearen.

Ohiko taldeak atera eta beste solaskideak ezagutzeko aukera aparta da afari honek eskaintzen duena.

Gainera, solaskidetako batzuk prestatuko duten menua eskainiko da afarian, entsalada epela eta oilaskoa. Honetaz gain, izozkia eta kafea ere egongo dira.

Afarirako txartelak 12 euro balio dituzte eta gaurtik aurrera eskuragarri egongo dira Ttakun elkartearen. Tiketa eskuratzeko azken eguna osteguna, azaroaren 18a izango da. •



Giro ederrean Solaskideko euskaldun berri eta zaharrak afariak egiten dituzte.

KIROLA

Kirol abonua berritzeko garaia da

Kirolzalea baldin bazara eta herriko kiroldegiko instalazioak erabiltzeko ohitura baldin badaukazu abonua berritzeko epea iri du Lasarte-Oriako Udal Kirol zerbitzuak.

Abonu berritze epea eta abonua desberdinen, urtekoa edo sei hilabetekoaren berri emateko Lasarte-Oriako Kirol Udal Zerbitzuak 18 urte beteak eta 25 urtetik behera izanik familiako abonuen barne jarraitu nahi duten bazkideei, ordainketa helbideratua duten bazkideei eta ez helbideratua dutenei gutuna bidali die etxera.

Era berean, Kirol Zerbitzuek gogoratzen dute abonua familiarren barnean egon diren 25 urte arteko gazte baimenduak adin hori igarotzerakoan ezin direla abonua familiar horretako onuradun izan. Horren ondorioz, abonua indibiduala egin behar dute kirol instalazioak eta zerbitzuak erabiltzeko. •



Danok Kide XVIII. jaiotzen lehiaketako saribanaketa Errege egunean egiten bazen ere, aurtun 2011eko urtarrilaren 2an egingo da.

Nerea Astarbe, bere herrian dantzari

■ Ostiralean Kultur Etxean Down Sindromea duten dantzari osatutako Verdini taldeak "Dantzaria naiz" lana eskainiko du ■ Bost urte darama taldean dantzan

Nerea Astarbe lasarteoriatarrek jada bost urte daramatza Verdini Dantza taldean dantza garaikidea egiten eta "Ilunpetik", "Argira" eta "Dantzaria naiz" emankizunetan parte hartu du. 2000. urtean Isabel Verdini sortutako taldearen helburua Down sindromea duten pertsonen integrazioa eta garapen pertsonala lantzea da, eta ekimenak erantzun eta emaitza oso onak izan ditu. Dantza, gero eta hobeto, egiten dute, hainbat lekutan emanaldi hunkigarriak eskaini dituzte eta zenbait aitoren-sari jaso dituzte. Ostiralean arratsaldeko 20:00etan kultur etxean eskainiko dute "Dantzaria naiz" ikuskizuna.

JON ALTUNA

Nerea Astarbe lasarteoriatarrek dantza garaikidea egiten du Donostiako Verdini taldean eta panderoa jotzen da Amalurren Jon Lasarekin. Ostiralean bere gaitasun eta dohainak ezagutzeko aukera izango dute herritarrek, Kultur Etxeko aretoan Verdini taldeak "Dantzaria naiz" bere azken lana eskainiko baitu. Musikariek zuzenean jotzen dituzten doinuei jarraituz 13 dantzari izango dira oholztan, horietatik zortzi Down Sindromea dutenak. Nerea Astarbe da horietako bat.

Bost urte daramatza Verdini Dantza Taldean, 12 urte zituzenean hasi zen eta orain 17 dauzka. Aurretik ez zuen Nerea Astarbek dantza ezagutzen, Verdini taldean hasi zen dantza garaikidea egiten eta ordutik, 2005etik taldeak sortu dituen hiru emankizunetan parte hartu du: "Ilunpetik" lanean hasi zen, "Argira" izenekoan dantza egin eta panderoa jotzen zuen, eta "Dantzaria naiz" da beraien azken lana.

2000. urtean talde sortu zenetik zazpigarren ikuskizuna da eta Nerea Astarberentzat hirugarrena. Victoria Eugenia antzokian estreinatu zuten urriaren 2an, ondoren, Dax hiri frantsesean izan ziren, aurreko larunbatean Amurrioren ostiralean Lasarte-Orian eskainiko dute "Dantzaria naiz" arratsaldeko 8etan kultur etxean.

"Uste dut jende asko joango dela ikustera" esan digu Nereak berak. Jose Luis Astarbe eta Maite Mur gurasoek joateak merezi duela uste dute: "Jendeak ez du imajinatzen zer den, zer dantza klase egiten duten". Eurek ez dute zalantzarik, "ikuskizun ederra da, hunkigarria".

Maite Murrek kontatu digunez, "ikusle asko negar

malkotan ateratzen dira, "ez nuen uste horrelakoa izango zenik" esanaz. "Neskato hauek zer egingo ote dute" pentsatzen dute, hori daukate ikusleek buruan eta ikuskizun oso polita da, ikusi eta gero harritu egiten dira".

Lan bikaina

Jose Luis Astarbek ere bihotzera iristen den lana dela uste du: "Ikusi egin behar da. Esan dezakegu oso polita egin dutela, baina ikusi gabe ezin jakin nolako espektakulua den. Lan asko dago. Jendea ez da konturatzeko. Askok gustatzen zait eta ez aita naizelako". Ismael Yaguek sortu duen musika zuzenean jotzen dute, gehienak euskal kantak dira, "Ikusi nuenean", Mikel Laboaren "Haika Mutil",... eta horrek, Astarberen ustez, oraindik hunkigarriagoa egiten du.

"Gero eta zailago jartzen diredute" esan digu aitak. "Hirugarren lan honetan denek elkarrekin, koordinatuta, egingo dute dantza. Lehen nork bere



Nerea Astarbe, dantzari eta panderojolea da. Arg.:Astarbe-Mur familia

“*"Dantzaria Naiz izenburua horixe aldarrikatzeko jarri diote. Gai direla erakusteko".*

kasa egiten zuen eta denak batera egiteko teknika gehiago behar dute orain. Ikuskizun polita sortu dute". Izan ere proiektuaren helburuetako bat euren garapen pertsonala da.

Jatorriz errenteriarra den Maite Mur-ek azaldu digu

"Dantzaria naiz" ikuskizunean aldarrikapenak toki handia duela, izenburutik hasita. "Dantza klase bat irudikatzen dute, okerrak zuzendu egiten dituzte irakasleak, eta hobetzen joango dira".

"Beraiatzat hau auto-esti-

maren bultzada handia da. Jendeak beraien lana baloratzea handia da beraiatzat. Ona da lotsak ere gaintzen dituztelako. Nerea oso lotsatia da, eta beraz adibidez Victoria Eugenia aterata muga eta oztopo asko apurtzen ari da" esan digu Maite Murrek. Jose Luis Astarbe ere oso pozik dago "dantzan nola dabilen eta zer gauza egiten dituzten ikusita, benetan zoraturata nago. Beragatik batez ere. Mundu berri bat da, telebista edo prentsan ateratzen dira, jende aurrean dantza egiten dute, beti elkarrekin daude, bere lagun koadrila da,... Pox handia ematen dio eta bera pozik ikusteko gu pozten gaitu. Garrantzitsua da hori".

Integrazioa

2000. urtean Isabel Verdini sortu zuenetik, taldearen beste asmoa urritasuna duten pertsona hauek gizartearen naturaltasunez txertatzen laguntzea da. Hamar urtetan esperientzia handia bildu dute zeregin horretan eta Isabel Verdini berak adierazi du taldea profesional bihurtzea dutela orain helburu. Astarberen ustez, "Dantzaria Naiz izena horixe aldarrikatzeko jarri diote. Kapaz direla erakusteko".

Erantzun ona jaso dute urte hauetan, sari eta emanaldi arrakastatsuek hainbat lekutan, besteak beste ONCeren Elkartasunaren Saria 2006an, eta Donostiako Herritarraren meritu sarritzen duen domina 2008an. Euskal Herriko antzoki entzutetsuenetan izan dira behin baino gehiagotan, Biarritzen, Bilboko Euskaldunak, Donostiako Victoria Eugenia,... eta Euskal Herriatik kanpo ere bai.

Alex Tetuan-ek ere hurbiletik ezagutzen du Down Sindromea duten pertsonen problematika. Oro har, pozik dira antzoki antzoki pertsona hauen integrazioa pausak ematen ari direlako. Estreinaldian ikusi zuen Verdini taldekoen lana, eta bere ustez, "bi hitzetan, ezusteko atsegina da ikuskizuna, hunkigarria". "Bizitza osoa pasa dezakezue besteak sentibiltzatzen, baina gizarteak daukaguna da eta beraz benetako pausak horrelakoak dira. Urrats handiena da gaur egun pertsona hauek bisibletik direla, garai batean etxean egoten ziren ia atera gabe. Eskolatzeko, integratzeko, elkar bizitza,... ezinezkoak ziren orduan. Hor urrats handiak eman dira". •



dauzkanak denbora gehiago daramate dantzan, baina ez dio beldurrik zereginari. Oso ondo pasatzen du entseguetan, eta emanaldietan ere bai. Ez omen da urdurijartzen.

Ikusleen txalo zaparradak gustura jasotzen dituzte, euren

lanaren ordaina dira eta. Batzuetan lore sortak ere jaso dituztela kontatu digu Nereak.

Aurreko "Argira" lanean dantza egin eta panderoa jotzen zuen. Honetan dantza egiten du soilik. Amalurren Jon Lasarekin ere pozik aritzen dela dio. Ostiralero joaten da. Ez zitzaion zaila egin ikastea, txikitzen hasi zen eta. Herriko festetan "lagunekin" jotzea gustuko du.

Aparte, igerilekura joaten da, Ondarretara teniseari jokatzera, astelehenera ostiralera goiz eta arratsaldean ikastolara,... ez dakigu nondik ateratzen duen hainbeste gauza egiteko denbora. •

Puntu garrantzitsuenak onartu ziren

■ Udalak 3 milioiko kreditua eskatuko du ■ Urgolf eta Udalaren hitzarmen aldaketari esker, Okendoko eremua 2011. urteko apirilera egina egongo da

Lasarte-Oriako Udaleko Gobernu taldeak gai garrantzitsuenak aurrera atera zituen ostegunean burutu zen Batzarrean, 2011. urteko Udal zerga eta tasak aldatzeko espedienteak, kredituak aldatzeko dossiera, Michelingo ibai ondoko lurra eremu industrialia bihurtzeko arauaren aldaketa eta Urgolf enpresarekin Udalak duen hirigintza-hitzarmenaren aldaketa.

TXINTXARRI

Aurreko zenbakian argitaratu genuen 2011. urteko Udal zerga eta tasak aldatzeko espedienteaz gain, Udal Gobernuarentzat garrantzitsuak ziren hainbat gai jorratu zirela lehengo osteguneko Batzarrean.

Kreditua

Era honetara, Lasarte-Oriako Udalak 3 milioiko kreditua eskatuko du, Udal txerri berriko, Jaizkibel plazako eta Hielduen Hezkuntzako egoitza berriko lanak aurrera eramateko.

“Aurrekontua onartu ezenez, beharrezkotzat jo ditugun lanetarako kreditua eskatuko da,” azaldu zuen alkateak.

Alderdi jeltzalea pozik agertu zen, kredituaren kopurua aurrekontuetako proposamenekoa baino kopuru txikiagoa delako, baina “lan horien kudeaketarekin ez gaude ados. Lehentasunak neurtu behar dira, lanak hasi baino lehen,” adierazi zuen Estihu Alkortak.

Industria gune berria

Michelingo ibai ondoko lurra eremu industrialia bihurtzeko arauaren aldaketa aho batez erabaki zen.

Iñaki Mujika PSE-EEren bozeramaileak azaldu zuenez, pausu garrantzitsua eman da eremu hori industria gune bilatzeko. Izan ere, bere hitzetan, “poligono garrantzitsua” izango da, herrira enpresa gehiago ekarri eta herritarrentzat lana sortuko duena.

Hitzarmen aldaketa

Bestalde, 2006. urtean Udalak eta Urgolf enpresak sinatutako hitzarmenaren aldaketa egingo da.

Honen bitartez, Urgolf enpresa Okendo eremuko lan guztiak 2011ko apirilean bukatuko konpromisoa hartu du. “Aurreko hitzarmenaren arabera, hiru urteren buruan, bukatuko lirakeke lanak Baina

epeak aurreratzea lortu dugu,” aipatu zuen Jesus Zaballos alkateak.

EAJ alderdia ez zen ados agertu hitzarmen aldaketarekin, “aurrekoa ez baitago gutiz egina, akatsak daude enpresak zor dituen kopuruetan.” Aldaketa hauekin onuradun bakarra Urgolf enpresa dela eta Udalaren kudeaketa txarra salatu zuen.

Ezker Abertzaleak Okendo eremua, “Gobernu taldearen proiektu izatetik, herriaren proiektu izatera” igarotzea eta nahiz eta lanek hasiera herrenan izan, proiektua ongi bukatzea espero dutela adierazi zuten, baita alkateari Okendo herriko gunea izango al den galdetu zioten.

Alkateak Okendo herriko plaza garrantzitsua izango dela adierazi zuen.

Era berean, Iñaki Mujikak enpresak zorra azken likidazioan ordaindu beharko dituzela adierazi zuen, baita lan hauen aurreratzea herritarrentzat hobekuntza izango dela ere.

Etxebizitzaren ordenantza

Batzar horretan, gainera, Lasarte-Oriako Babes Publikoko Etxebizitzaren erregimena arautzeko ordenantza aldaketa batzuk egitea ere onartu zen.


Honela, hemendik aurrera BOEko onuradunak eta haien etxebizitzak zozketa bakarrean erabakiko dira. Gainera, onuradun izanez gero, etxebizitza bi alditan soilik ukatu ahalgo da.

Kalea garbi

Herritarren elkarbizitza eta bide publikoaren erabilera eta garbiketa arautzeko egin den ordenantza ere atera zen.

Azken honetan LOHParen eskaera bat izan zuen, “herritarrek kontzientziatu behar ditugu eta arauak, betetzeko kanpaina egin behar da, errotik, eskoletatik.”

Alkateak ordenantzako puntu garrantzitsuenak eskuorri batean etxeetan banatuko dela jakin arazi zuen.



Hiriber programako laguntza mantendu eta Jaizkible Plazako eraberritzea egin ahal izateko Udalak kreditua eskatuko du.

Langileen soldata

Honetaz guztiaz gain, langileen soldata murrizteko proposamena onetsi zen.

Aurretik, Ezker abertzaleak eta Ezker Batuak langile Komitearen proposamena entzuna eta eztabaidatua izatea eskatu zuten, baina Batzarrek ez zuten hori ahalbideratu.

Ezker Batuak krisi egoera honetan langileak kaltetuenak direla aipatu zuen eta bere ustez, egokiena Udalhitzekoaren arabera Udaleko taulak eguneratzea izango zela adierazi zuen.

Beste puntuak

Hauetaz gain, 2010 ekitaldian kredituak aldatzeko gaur arte bideratu diren dossieren berri ematea egin zen.

Udaleko ondasun eta eskubideen 2009ko inbentarioan egindako aldakuntzak eta 2009ko ekitaldiko aurrekontuaren kontu orokorraren dossiera onetsi ziren.

Kontagailua daukaten auto pribatuaren ordenantza eta taxien 2011ko hiri barruko tarifak ere ontzat eman zituen Batzarrek.

Mozioak eztabaidatzen hasi baino lehen, Zabaleta-Berriko Mirentxu eneko jabeek jarritako alegazioa ebatzi zen eta eremu horretarako plan partzialaren estudioari baiezkotza eman zitzaion.

Mozioak

Hainbat izan ziren mozioen bidez, Udaltzarrean jorratu ziren gaiak.

Batetik Gobernu taldeak

2011ko aurrekontua eta Plan ekonomiko-finantzarioa aurkezteko eskaera egin zuen EAJk batetik “egoera jasangaitzean dago Udala, aurreko urteetan epeko kanpo edo aurrekontua aurkeztu ez delako” eta bestetik, aurrekontuari egonkortasuna emateko plana behar delako.

Ez zen mozioa aurrera atera Gobernu taldeak hauek egiteko asmoa duela adierazi baitzuten.

Hala ere, oposizioko taldeek aurrekontuaren harira, eskaera bat egin zuten, aurrekontuak taldeek aztertu eta emendakinak egiteko epea luzatzeko eta Alkateak dagokion Batzarrean eztabaidatzeko gaia izango zela aipatu zuten.

PSE-EE alderdiak Gizarte Zerbitzuen Euskal Legeak betetzeko ebazpen proposamena egin zen.

Honen ondorioz, Lasarte-Oriako Udalak Foru Aldundiari dagokion Atsokabarreko zahar egoitzako kudeaketa erantzukizuna beregain hartzeko eta zerbitzu horregatik Udalak duen defizitu ordaintzeko eskaera egingo dio.

Era berean, alderdi sozialistak Lasarte-Oriako auzoak eta Ospitaleak lotuko dituen autobusaren proiektua aintzat hartzeko eskaera aurrera atera zen, Ezker Abertzaleko erasikin batekin, Institutu edo eskola aurrean geltoki bat ezartzea.

Ohizko mozioez gain, larrialdiko batzuk ere egin ziren.

Saharako egoera gaitzestea eta hurrengo egunetan egingo diren ekimenetan parte hartzea adostu zuten talde guztiek, baita azaroaren 25ean emakumeenganako indarkeriaren aurkako deklarazioko testua ere.

Bestalde, atzera bota ziren EBk aurkeztutako Donostialdeko Lurraldeko Plan Partzialaren alegazioa egiteko eta Estatuak udalen defizita murrizteko egin duen legearen aurkako mozioak, baita EAJk Eusko Jaurlaritzari Gizarte Larrialdietarako Laguntzen baldintzak betetzeko eskaera ere.

Galderak eta eskaerak

Udalbatzar luzeari amaiera emateko, Ezker Abertzaleko zinegotziek bi galdera egin zituzten alkateari, bata Udalak eta Eusko Jaurlaritzak jangela eta haur eskolaren eskumenen negoziaketan berri emateko eta bestea, Udalak egin behar zuen diru laguntzen araudiari buruz.

Diru laguntzei dagokionez, alkateak idazkariaren eta kontu hartzailearekin batu behar dela aipatu zuen, biek dituzten proposamenak aztertu eta bat aukeratzeko.

Bestalde, Hezkuntza sailekoekin negoziaketak ongi doazela eta hurrengo ikasturterako jangelako kudeaketa jaurlaritzaren eskuetan egongo dela aurreratu zuen, baita haur eskolaren kasuan erakuntza aztertu eta horren ostean Jaurlaritzak erabakiko duela ere. •

Errausketa eta osasuna, aurrez aurre

■ "Errausketarik Ez" jardunaldietan osasunaz arituko dira Lasarte-Orian ■ Medikuek jorratuko dute gaia ■ Errausketaren aurkako plataformek hitzaldiak antolatu dituzte

Er rausketarik Ez" izenburuarekin Donostia aldean burutuko diren jardunaldietan jorratuko diren hiru gaiak, errausketak pertsonen osasunean eragiten dituen ondorioak, hondakinak gutxitzeko moduak eta hondakinak biltzeko dauden sistemak izango dira. Lasarte-Orian, Donostian eta Errenteria-Oreteran burutuko dira hitzaldiak azaroaren 17tik abenduaren 2ra bitartean Errausketaren Aurkako Herri Plataformen Koordinakundeak antolatuta, errausketaren gaiarekin lotura duten mediku, sindikalista eta ordezkari politikoen partaidetzarekin. Hitzaldi sortako lehenengoa egingo da Lasarte-Orian. "Errausketa eta Osasuna" izango da azaroaren 17an, asteazkena, arratsaldeko 19:30ean, Manuel Lekuona

Kultur Etxean bi medikuk jorratuko duten gaia.

Medikuak hizlari

Iñigo Suberbiola eta Julia Sanjose mintzatuko dira errausketak osasunean duen eraginaz. Iñigo Suberbiola lasarteoriatar medikua da. Julia San Jose, Errausketa eta Osasunari buruzko Azterketa Taldeko kidea eta gai hauetan aditua den medikua.

Azaroaren 24an Donostia Koldo Mitxelena Kultur Etxean arratsaldeko 19:30ean Jesus Perez Gomez "Hondakinak nola gutxiitu?" galderari erantzuten saiatuko da bere mintzaldian. Bigarren saio honetako hizlaria "Instituto Sindical de Trabajo, Ambiente y Salud" elkarteak kidea da eta hiri hondakinei buruzko hainbat azterketa egin ditu.



Jardunaldiei abenduaren 2an emango zaie amaiera hondakinak biltzeko dauden sistemei buruzko hitzaldiarekin. Errenteriko Xepelar aretoan arratsaldeko 19:30etik aurrera Ricardo Ortega Lasarte-Oriako EBko zinegotzi eta San Marko Mankomunitateko lehendakari ohiak eta Mikel Izagirre Urnietako alkateak hitz egingo dute hiri hondakinak biltzeko sistemei buruz.

Bi hizlariak Ezker Batuko ordezkariak dira eta San Marko Mankomunitatean hondakinak kudeatzeko modu ezberdinei buruzko esperientzia zabala jaso dute.

Ricardo Ortega lasarteoriatarra hiru herritan atez ateko biltzeta martxan jarri duen Mankomunitateko lehendakari izan da orain dela gutxi arte. •

Miren Artetxe ezin hirugarren mantendu

Larunbatean jokatu zen *Xilaba*, Zuberoako, Lapurdiko eta Nafarroa Behereko Bertsulari Xapelketa, Donibane Lohizunen, eta bertan Miren Artetxe herritarrek hartu zuen parte.

Miren ez zen orain bi urte bezain ondo aritu eta ezin izan zuen hirugarren postua errepikatu eta zazpigarren amaitu zuen. Oso saio polita egin zuen Sustrai Colinarekin batera ofiziotan, baina oso maila altua egon da aurtengo finalean.

Ikusle asko bildu ziren finala ikusteko, ia 2000 lagun eta bigarren aldiz Amets Arzallus hendaia irabazi zuen. Odei Barroso, urruñarra izan da aurtengo sorpresa eta bigarren amaitu zuen Sustrai Colina hirugarren postuan geratu zelarik. •



Miren Artetxe Iparraldeko puntako bertsularia dela demostratu du txapelketen.

Arg.: Gaizka Iroz.

MERKATARITZA

Kupoien kanpaina berria antolatu du Aterpea elkarteak azaroan zehar

Aterpeak, Lasarte-Oriako Merkataritza eta zerbitzu elkarteak, "Urratu eta Irabazi" kupoien kanpaina berria jarri du martxan azarorako.

Kanpaina honetan, Aterpeko dendetan erosketak eginez gero, sari zuzenak lortu daitezke.

Erosketak egiterakoan Aterpea dendatan, kupoiak banatuko dituzte. Kupo hauek "Urratu eta Irabazi" motatakoak dira eta antolatuak jakinarazi digutenez, sari zuzenak lortzeko aukera izango da, zozketarik gabekoak.

Kanpaina berri hau azaroaren 15etik 30era egongo da martxan. •

Txintzarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintzarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintzarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

Metamorfosiaz, Jasone Irigoien-nen margo erakusketa. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.

Asteazkena, 17

Ipuin-kontalaria

IPUINAREN ORDUA Koruko Zuru-tuza eskutik 6, 7 eta 8 urteko haurrentzat. Urteak errespeta-tu egin behar dira eta haurrak bakarrik egongo dira.

Behin ipuina hasi eta gero, ezin da gelatik atera. Manuel Lekuona kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etatik aurrera, EUSKARAZ.

Jardunaldiak

ERRAUSKETA ETA OSASUNA izeneko hitzaldia eskainiko dute Iñigo Suberbiola eta Julia San-jose medikuek Errausketaren Aurkako Herri Plataformen Kordinakundeak antolatuta. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean.

Diaporama

COSTA RICA ETA NIKARAGUARI buruzko diaporama eskainiko dute Mikel Zinkunegik eta Jose Luis Garciak. Jalgi kafe-antzokian 21:30ean. EUSKARAZ



Haurren emozioak eta pentsamenduak hizpide

GARAPEN PSIKOAFEKTIBOA. HAURREN EMOZIOA ETA PENSAMENDUARI buruzko hitzaldia eskainiko du Josune Martiarenak Udalaren Sanitateko Departamentuak antolatuta 7 urte arteko haurrak dituzten guraso eta hezitzaileei zuzenduriko zikloaren barruan.

ASTEARTEAN, HILAREN 16
KULTURETXEAN 18:00ETAN
GAZTELANIAZ

Ostirala, 19

Kontzertua

ORIA HIRUKOTEAREN emanaldia Danok Kidek antolatzen duen VI. Topaketa Musikalen barruan. Brigitarren komentua, 19:30ean.

Dantza

DANTZARIA NAIZ emanaldia eskainiko du *Verdini* taldeak Lasarte-Oria Dantzan ekimenaren barruan. Sarrera, 6 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan.

Larunbata, 20

Antzerkia

EINSTEIN haurrentzako antzerkia Ados antzerki taldearen eskutik. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan, EUSKARAZ.

Igandea, 21

Zinea

COMO PERROS Y GATOS haurrentzako filma. Sarrea 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, GAZTELANIAZ.

Astelehena, 22

Kalejira

MUSIKA ESKOLAREN KALEJIRA Santa Zeziliaren eguna dela eta. Herriko kaleetan zehar, 18:30ean.

Asteazkena, 24

Diaporama

GARAZI, GASTEIZ ETA BARDEETARA eginko irteerei buruzko diaporama eskainiko du Oinatz taldeak. Jalgi kafe-antzokian, 21:30ean, EUSKARAZ.

Osteguna, 25

Zinea

80 EGUNEAN filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera, 4,20 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean, EUSKARAZ.

Ostirala, 26

Antzerkia

EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOKO antzerki taldearen ANTZEZLANA. Sarrera, 2 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean.

Larunbata, 27

Sari banaketa

LITERATUR LEHIAKETAKO SARI BANAKETA. Manuel Lekuona kulturetxean, 12:00etan.

Jaialdia

GURE AMETSA taldearen jaialdia. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:30ean.

Igandea, 28

Zinea

EL PRINCIPE DE PERSIA haurrentzako filma ikusgai. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan. GAZTELANIAZ.

Asteazkena, 1

Diaporama

GEORGIARI buruzko diaporama eskainiko dute Igor Unanuek eta Mikel Urdanpilletak. Jalgi kafe-antzokian, 21:30ean. EUSKARAZ.



Eskutitzak

Lasarte-Oriako alkate eta zinegotzietz, errauskailua eraikitzearen konplizeak

Jakin nahiko genuke, Lasarte-Oriako alkateak ze bide aukeratu duen gure herriko hondakinen kudeaketan.

Jakin nahiko genuke ea gure dirua zahutzen jarraituko duen lur azpiko zaborontzi batzuen mantenimentuan, ez dutenak inongo aurrerabiderik eskaintzen hondakinen murrizketan.

Zentzu honetan jakin nahiko genuke, ea "aztertu dituen gaikako zabor bilketarako sistema eraginkorra goak, lortuko dutenak erraustegira edo zabortegira doazen hondakinak ahalik eta gehien gutxitzea, edo, alderantziz, bere erantzukizun utzikeriarekin jarraituko duen, orain arte bezala, hondakin organikoak dena batera legez kanpo jasotzen.

Jakin nahiko genuke, "Lasarte-Oriako aurrera egin dezan lan egitea" esate duenean, "errauskailua eraikitze aurrera egitea" esan nahi duen, eta "garapen jasagarria" dioenean, "gaixotasunen garapen jasagarria" esan nahi duen.

Lasarte-Oriako alkateak dio ehundaka herritarrek konpromezuak hartu dituela bisita pribatuetan. Herriko gehiengo handi bat errausketaren aurka dagoe-la jakinik, noekin konprometitu da Jesus Maria Zaballos errauskailuaren eraikuntza aurrera jarraitu dezan?

ERREDAKZIOAN ITZULIA

Lasarte-Oria Bizirik



Oharrak

Ttakun Sariak

Azaroaren 27an izango dira Ttakun Sariak Goiegik jate-txean. Bilkura arratseko 20:30ean izango da jate-txean bertan eta afuldu ondoren hainbat ekitaldi prestatu dituzte: txalaparta, bersoak, antzerkia... eta sorpresa ugari.

Afarira joateko txartelak eskuragarri daude Ttakunen (Geltoki kalea 4) azaroaren 24ra arte. Helduek 30 euro ordaindu behar dute txartela eta 16 urte bitarteakoez, berri, 17 euro.

Oztabide elkarteko loteria

Oztabide auzo-elkarteak Arranbide-Oztaraneko auzotarre jakin arazten die eguberriko loteria salgai dagoela. 19108 zenbakia da eta 3 eurotako (loteria: 2,5 euro eta emaria: 0,5 euro) loteria par-

taidetzak dira hartu daitezkeenak. Loteriako partaidetzak Txema tabernan (Andapa kalea, "Zumaburu") eta Coviran supermerkatuan (Oztaran enparantzan) erosi ahal izango dituzte.

Bide batez, gogora arazi nahi dizuegu administratza gastuei aurre egiteko baliabide hau bakarrik daukala elkarteak.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, diruzorroa, urrezko katea, zilarezko zintzilarioa, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta, puntuzko txaketa eta erloju bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat

ikusatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Bazpi txirinda eskolaren egoitza berria

Bazpi txirinda eskolak egoitza berria du. Lasarte-Orian, Atsobakar auzoan irekiko den BIKES360 txirinda dendan izango du egoitza berria. Bikes360 Txirindulariarentzako Zentru Integrala Green plaza 1, behea 2-n dago.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Mikel Zinkunegi Costa Rican eta Nikaraguan bidaiari

“Gu ez gara turistak, bidaiariak gara”

■ Mikel Zinkunegik eta Jose Luis Garciak bost astez bidaiatu zuten Costa Ricako eta Nikaraguako atlantiar kostaldetik ■ Bertan, beste mundu bat eta jende ugari ezagutu dute

Mikel Zinkunegik eta Jose Luis Garciak udaran Erdialdeko Amerikara bidaiatu zuten. Bertan, Costa Rica eta Nikaraguako kostaldeko ibaietan barrena ibili dira herrixkaz herrixka. Mikel Zinkunegirekin bildu gara bidaiari buruz gehiago jakiteko. Hala ere, elkarrizketa honekin nahiko ez duenak, aukera du, asteazkenean, 21:30ean Jalgi Kafe antzokian egingo duten diaporamara hurbildu eta galdetzeko.

Nerea EIZAGIRRE

Nikaragua eta Costa Rican non ibili zineten zehazki?

Eremu horretako Atlantiar kostaldea egitea zen gure ideia eta hiriburuetan beharrezkoa zena bakarrik egotea.

Bost aste genituen eta denbora ematen ziguna egiteko asmoa. Azkenean, Nikaragua eta Honduraseko mugara iritsi ginen.

Eremu hori ezagutzen genuen aurretik. Nikaragua asko ezagutzen dugu. Costa Rica ere zerbait ezagutzen nuen nik.

Baina atlantiar kosta hori ez genuen ezagutzen eta beste mundu bat da.

Zergatik diozu hori?

Hori ez da Costa Rica, ez da Nikaragua, beste mundu bat da. Beste idiosinkrasia bat dute. Bestelakoak direla kontsideratzen dira.

Izan ere, Karibeko kostalde horretan jende beltz ugari dago. Garai batean Jamaikatik ekarritako beltzen ondorengoak dira eta hizkuntza desberdina dute, ingelesek okupatu zuten eremu hori eta patua hitz egiten dute, ingelesa eta haien hizkuntzaren nahasketa bat.

Oso desberdina da kulturaren ere. Musikari dagokionez, oso musika desberdinak dituzte calipsoa, reggae propioa daukate... Oso bizitza desberdina da. Bizitzeko era ere oso desberdina da.

Kulturalki bakarrak?

Nikaraguaren kasuan politikoki ere desberdina da. Bi probintzia autonomo dituzte, partidu politikoko desberdinak, etnia desberdinak.

Beraiek ez dira beste nikaraguarrek bezala; beltzak, mestizoak eta indigenak dira eta besteei, "txuriak" deitzen diete.

Gainera, Nikaraguan sandinistekin topatu gara, herria nola dagoen ikusi dugu, nola arnas hartzen duen talde politikoak eta herriak gauzak nola ikusten

dituen jakin. Horrek, aukera eman digu orain dela urte askotako gauzak gogoratzeko.

Indigenez ari zarenez, zein da haien egoera?

Indigenak teorikoki asimilatuak daude sisteman. Badaude talde batzuk exotismotik bizi direnak, Bluefields ondoan, oso talde txikia.

Besteak, nahiko asimilatuak daude. Hizkuntza mantentzen dute, baina eskolatan ez dute lantzen, musika ere badute.

Guk iparraldeko taldeekin harremana izan genuen. Inguru hori gutzia, Nikaraguako iparraldea eta Honduraseko hegoaldea mizkitoen eremua da.

Horiek hizkuntza propioa dute eta bizitza propioa, baina ez daude garatuak. Nahiko jota daude, eremua kaltetua da alkohola, drogak...

Hala ere, politika arloan, partidu politikoko potentia dute eta momentu honetan, iparraldeko erregerioan gobernuan daude sandinistekin batera.

Patua edo mizkitoen hizkuntza aipatu dituzu, zailtasunik al dago bertakoekin harremanetan jartzeko?

Ez da horrelakorik gertatzen, gaztelera hitz egiten dute.

Horregatik bidaiatzen dugu hainbeste hara. Izan ere, hizkuntza arazorik ez egotea ere garrantzitsua da, haiekin egoteko aukera ematen baitzitu.

Nola moldatu zarete bertan batetik bestera joateko?

Denbora gutzia pasa dugu bus-ta, batetik bertako jendearen itsasontzietan eta txalupetan ibili garelako eta bestetik euri asko egiten zuelako.

Leku hezea da. Ibiltzeko eta mugitzeko nahiko zaila da.

Gu hemen mapak begiratu eta errepiderik ez zegoela ikusten genuen. Baina modurik egongo zela uste genuen.

Beraz, txalupetan...

Bai. Oso gustura ibili ginen eta denbora genuenez. Herrixkatik



Costa Ricako eta Nikaraguako atlantiar kostaldea ezagutu dute Mikel Zinkunegi eta Jose Luis Garcia herritarrek.

herrixkara ibili gara, beraiek erabiltzen dituzten garraioetan.

Beraz, moldatu behar ginen, "txalupa bat ateratzen da hemendik bi egunera". Egunean hara joan eta hurrengo herrixkan, "hiru egunera arte ez da bat ateratzen" eta bertan egoten ginen.

Guk ez dugu ezer eskatzen eta beraiek guri ere ez. Bidai batean, lau edo bost ordukoak, ez daukagu ezer eginik eta lasaitasun horrek aukera ematen du haiekin egoteko.

Lasaitasunez, beraz...

Guri manto ibiltzea gustatzen zaigu. Leku gustatzen zaigula, denbora gehiago egoten gara. Ez dugula gustuko, azkarrago alde egiten dugu.

Inor ez dago gure zain, beraz, gure ermittora goaz.

Ez duzue bidaia aurreikusten?

Ez, gure plan gutzia hegazkinitik jaitsi eta lo egiteko ostatu baten izena izatea da.

Gaua han egin, esnatu, bertakoei mapa eskatu edo liburu-denda batera joan eta mapa ikusi. Autobusak non hartzen diren galdetu eta bidaiatzen hasten gara.

Turismo mota desberdina egiten duzue, beraz...

Gu ez gara turistak kontsideratzen, bidaiariak gara.

Bidaia zehar, askotan esan ziguten, "turista, turista txangoa dut zuentzat animaliak ikusiko dituzu," baina guk ez dugu holako interesik.

Haiei bizitza ez kondizio-

natzea, ez molestatzeko, gu gaitetik ez joatea ez diru aldetik, ez kultura aldetik, gutxi gora behera pareko ibiltzea da gure helburura.

Neurri batean lortzen da, baina horren klabea denbora da.

Denborak burua irekitzen du, bideak irekitzen ditu eta jendearekin egoteko. Bidaiatzen dudanean, hori gustatzen zait.

Gainera, guk egin genuen bidetik ikusi genituen, dortokak, kaimanak, hegazti pila, baina haien garraibideetan joan da.

Eta bidaiatzeko modu hori nondik dator?

Brigadista bezala joan naiz gehienetan eta horren ostean, ez zara turista huts bat, beste ikuspuntu batetik ikusten duzu.

Behin horrela egon eta gero, ez zara persona berdina izango, beste pertonekin kontaktua izatea... eta ni horrela ohitu naiz.

Horregatik interesatzen zaizkit haien gai sozialak, politikoak, kulturalak, nola bizi diren, zein borrokatan dabil-tzan, zein antolaketa duten... Eta horregatik, haien bizitzan murgiltzea gustatzen zait.

Horrela bidaiatuta, anekdotarik izango duzue?

Urtero, uztailearen 19an Managua sandinistak sartu ziren eguna ospatzen dute.

Gu momentu hartan, herri txiki txiki batean ginen Rio San Juanen. Ekintza xumea egin

zuten eta haiekin egon ginen.

Hunkigarria izan zen guretzako. Emozionatu eta guzti egin ginen.

Horretaz gain, herrialde batetik bestera igarotzea odisea bat izan zen.

Muga fisikoa dago baina ez kontrolik eta ilegalki igarotzea eskaini ziguten. Baina ez zitzaizgun komeni.

Beraz, barrura sartu behar izan genuen, Rio San Juanera, pasaportea egin, aste bat igaro eta berriro leku berera bueltatzeko.

Normalean ordu betean egiten dena, han aste betean egin genuen. Baina abentura eta bizitza horretan dago.

Eta arazorik?

Ez dugu inolako arazorik izan, jende askok arriskua zegoela esan ziguten, teorikoki eremu horretan arrisku handia omen dago. Baina guk arazorik ez dugu izan. Jendearekin, janarekin, osasunarekin arazorik ez.

Bueltatzeko asmorik?

Nikaraguara egunen batean bueltatuko naiz. Haiekin borrokatu gara bertan eta hemen. Nikaragua pixka bat etxea bezala kontsideratzen dugu eta noizbehinka etxera joatea ondo dago.

Costa Ricara ez dut uste. Hala ere, oso gustura egon ginen kostako jendearekin, herri berezia da eta jende ona leku gutzietan dago eta bilatzen da. Baina Nikaraguak gehiago erakartzen gaitu esandakoarengatik. •